



## **[WWW.BALMASEDAONLINE.EUS](http://WWW.BALMASEDAONLINE.EUS) YA ESTÁ AQUÍ**

*La nueva plataforma online, pionera en Bizkaia, muestra más de 300 negocios balmasedanos para que cualquier persona pueda localizarlos y conocer los productos y servicios que ofrecen.*

El 14 de mayo ha sido el día escogido para la inauguración oficial de Balmaseda Online. Se trata de un proyecto de la Concejalía de Promoción Económica, Empleo y Comercio del Ayuntamiento de Balmaseda que consiste en la publicación de una plataforma digital para posicionar online todas las actividades económicas del municipio, desde el comercio hasta la hostelería, pasando por pymes o autónomos y autónomas. La variedad es palpable en los más de 300 negocios que se han sumado a esta iniciativa: unos 120 comercios, cerca de 35 establecimientos de hostelería y unas 100 pymes, entre otros.

¿Cuántas veces hemos buscado un producto o servicio en nuestro municipio, y al no tener tiempo para recorrer las calles y no encontrarlo en Internet, no nos ha quedado más remedio que recurrir a esas famosas plataformas que todos conocemos? ¿Cuántas veces nos hemos desplazado a otros municipios para adquirir o contratar algún producto o servicio que tenemos en nuestro propio municipio, pero que no hemos podido encontrar? Ahora cualquier persona podrá conocer lo que los y las balmasedanas ofrecen tecleando la dirección [www.balmasedaonline.eus](http://www.balmasedaonline.eus). Balmaseda es el primer municipio de Bizkaia en contar con una plataforma donde localizar cualquier negocio, producto o servicio local; comercio, hostelería, construcción, autoescuela, academias, abogados, taxis, centros de estética, de salud, fisios, nutricionistas, interioristas, etc.,... toda la riqueza empresarial de Balmaseda reunida en un único lugar.

La gran variedad y diversidad de empresas del municipio tiene la opción de presentarse en BalmasedaOnline.eus de cuatro formas diferentes:

1. "Ficha Simple", en la que las empresas presentan únicamente sus datos de contacto básicos.

2.“Ficha Completa”, en la que describen su negocio y permiten un contacto vía WhatsApp o Redes Sociales.

3.“Web Informativa”, mediante la cual las empresas presentan sus datos, imagen corporativa, así como su oferta de productos o servicios a través de un espacio web propio (aunque sin opción a venta o contratación online).

4.“Web Completa”, en la que se añade a todo lo anterior las funcionalidades de Ecommerce o tienda online. Es decir, se podrán comprar sus productos o solicitar una reserva de sus servicios online, conforme a las condiciones que cada empresa decida.

Con esta plataforma Balmaseda da un salto importante en la visibilidad de su oferta comercial, hostelera y de servicios, favoreciendo el consumo en los centros locales, apoyando e impulsando la digitación de los comercios y facilitando a los vecinos, vecinas y turistas la búsqueda en internet de los productos y servicios presentes en el municipio de manera sencilla y ágil.

Para llegar a este punto, el factor clave del proyecto ha sido la priorización de la formación y el acompañamiento de los establecimientos. Así, se ha ofrecido formación presencial a los negocios interesados en digitalizarse para ayudar a la capacitación de los mismos en el entorno web, persiguiendo el objetivo final de que sean autónomos en el manejo de la tecnología puesta a su disposición.

---

## [WWW.BALMASEDAONLINE.EUS](http://WWW.BALMASEDAONLINE.EUS) IRITSI DA

*Bizkaian aitzindaria den online plataforma berri horrek Balmasedako 300 negozio baino gehiago aurkezten ditu, edozeinek lokalizatzeko eta eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzuak ezagutzeko moduan.*

Maiatzaren 14an egin da Balmaseda Online plataformaren inaugurazio ofiziala. Balmasedako Udaleko Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Merkataritzako Zinegotzigoak sustatu du proiektua, eta helburua izan da plataforma digital bat argitaratzea, udalerriko jarduera ekonomiko guztiak Interneten posizionatzeko (merkataritza, ostalaritza, ETEak eta autonomoak). Bertan, 300 negoziotik gora aurki daitezke, eta askotarikoak dira: 120 saltoki, 35 ostalaritza-establezimendu inguru eta 100 bat ETE, besteak beste.

Askotan produktu edo zerbitzu bat gure udalerrian bilatzen dugu, baina kalean bila ibiltzeko denborarik ez dugunez eta bertako negozioak Interneten aurkitzen ez ditugunez, azkenean denontzat ezagunak diren plataforma ospetsu horietara jotzen dugu. Eta askotan joan izan gara beste udalerrri batzuetara geure udalerrian badagoen produktu edo zerbitzu bat kontratatzeko, ez dugulako bertan aurkitu. Bada, hemendik aurrera, edozeinek ezagutu ahal izango du balmasedarrek zer eskaintzen duten, helbide honetara sartuta: [www.balmasedaonline.eus](http://www.balmasedaonline.eus). Balmaseda halako plataforma bat duen Bizkaiko lehen udalerrria da. Bertan, tokiko edozein negozio, produktu edo zerbitzu aurki daiteke: dendak, ostalaritza-establezimenduak, eraikuntza-enpresak, autoeskolak, akademiak, abokatuak, taxiak, estetika-zentroak, osasun-zentroak, fisioterapeutek, nutrizionistak, barne-diseinatzaileak, eta abar. Balmasedako enpresen aberastasun guztia leku bakar batean.

Udalerriko askotariko enpresek beren burua BalmasedaOnline.eus helbidean ezagutarazteko aukera dute, lau modutara:

1. Fitxa sinplea: enpresen oinarrizko harremanetarako datuak bakarrik agertzen dira.
2. Fitxa osoa: negozioaren deskribapena agertzen da eta WhatsApp edo sare sozialen bidez harremanetan jartzeko aukera ematen du.
3. Web informatiboa: horren bidez, enpresek beren datuak, irudi korporatiboa eta produktu edo zerbitzuen eskaintza aurkezten dituzte, web-espazio propio baten bidez (baina online saltzeko edo kontratatzeko aukerarik gabe).
4. Web osoa: plan honek aurreko aukera guztiak ematen ditu, gehi *ecommerce* edo online dendaren funtzionalitateak. Alegia, produktuak online erosteko edo zerbitzuak online erreserbatzeko aukera egongo da, enpresa bakoitzak erabakitzen duen baldintzetan.

Plataforma horren bidez, Balmasedak aurrerapauso garrantzitsua eman du bere merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-eskaintza ezagutarazteko. Hala, tokiko establezimenduetan kontsumitzera bultzatzen du, saltokien digitalizazioa babesten eta sustatzen du, eta herritar eta turistei erraztasunak ematen dizkie udalerrian eskuragarri dauden produktu eta zerbitzuak erraz eta arin bilatzeko.

Puntu honetara iristeko, proiektuaren funtsezko faktoreetako bat izan da prestakuntzari lehentasuna ematea eta establezimenduei laguntzea. Hain zuzen, aurrez aurreko prestakuntza eskaini zaie digitalizatzeko interesa erakutsi duten negozioei, web-ingurunearekin lotutako gaitasunak eskuratzen laguntzeko. Prestakuntza horren azken helburua izan da negozioak autonomoak izatea beren esku jarri den teknologia erabiltzeko garaian.